

EAJ-PNV DURANGO UDAL TALDEAREN MOZIOA, GOBERNU TALDEAK DUELA URTE ETA ERDI HASITAKO PROZESUA AMAITU ETA PLATERUENA IREKI DEZAN, DURANGARREK ERABILI AHAL IZAN DEZATEN.

Plateruena Kafe Antzokia duela 16 urte sortu zen eta, ibilbide luze eta aberasgarri baten ondoren, bazkideen batzar nagusiak bere jarduera bertan behera uztea eta bere kudeaketaz arduratzen zen Kooperatiba Elkarte desegitea erabaki zuen duela bi urte.

Behin betiko itxiera 2020ko abenduan izan zen, eta ordura arte jardueraren ardura izan zuten pertsonak, Durangoko eremu soziokulturalean zuen garrantziaz jabetuta, "Etorkizun hurbilean proiektu berri bat martxan jartzeko" asmoa iragarri zuten, eta horretarako "Udalarekin batera lan egiteko prest zeudela" adierazi zuten. Helburu horrekin, 2021eko otsailean parte-hartze prozesu bati ekin zioten, «Plateruena eta Gero Zer ?» izeneko. Prozesu hori amaitzeko, 2021eko ekainean proposamen zehatz bat aurkeztu zen, durangar kulturaren munduko hainbat elkarte, erakunde eta pertsonak parte hartuta eta ekarpenak eginda. Proposamena Durangoko Udalari bidali zitzaion, aintzat har zezan.

Aldi berean, Durangoko Udalak beste partaidetza-prozesu bat hasi zuen helburu berarekin, eta, horretarako, EMUN enpresa kontratatu zuen, 10.000€ inguruko zenbatekoarekin (8.260 €+ BEZ). Prozesu horren emaitzak, Plateruenako etorkizuneko proiektua bideratzeko hainbat proposamen eta ekarpenekin batera, 2021eko ekainean ere aurkeztu ziren.

Beraz, Plateruena Kafe Antzokiaren etorkizuneko proiektua definitzeko bi partaidetza-prozesu paralelo izan ditugu Durangon, duela urtebete baino gehiago amaitu zirenak. Bi dinamika horien arabera, Plateruenak gazteriari eskainitako gunea izan beharko luke, eta euskara, kultura eta sormena hartu beharko lituzke balio nagusitzat. Bi partaidetza-prozesuek, gainera, hainbat ideia eta proposamen zehatz ekartzen zituzten proiektua definitzeko.

Hala ere, ez dugu gai horren berririk izan, eta bitartean Plateruena kafe antzokiak, Durangoko kulturarentzat gun eblematikoa izan denak, itxita eta proiekturik gabe jarraitzen du.

Jakin dugunez, eraikina itxi zenetik hainbat inbertsio puntual egin dira eta egitea aurreikusita dago, guztira 144.800€, baina ez dakigu zer asmo dituen gobernu-talde honek Plateruenako etorkizunari dagokionez. Eta kezkarriagoa dena, ez dakigu zein den Durangoko proiektu soziokulturala, batez ere gazteei zuzendutakoa.

Horregatik guztiagatik, kontuan hartuta Plateruenak hainbat urtez berebiziko garrantzia izan duela Durangoko kultura-esparruan, kontuan hartuta erdiguneko toki batean dagoen udal-eraikina dela, eta sarbide erraza duela, kontuan hartuta paper garrantzitsua izan dezakeela gazteen aisialdian, **EAJ-PNV udal-taldeak gobernu-taldeari eskatzen diogu duela urte eta erdi hasitako Plateruenako prozesua bukatu eta proiektua definitzeko, durangarren gozamenerako lehenbailehen ateak ireki ditzan.**